

# Goierri tarra

367. zenbakia 2009ko irailak 25


# Arriaran

## BIZI NAHI DUEN AUZOA



Altamiran  
sukaldaritza  
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia  
T 685 794 755 / [altamira@geri.net](mailto:altamira@geri.net)



reklone



# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.  
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

**Denda:** Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
 Tel.: 943 653 307  
 Tel. / Fax: 943 650 520  
 E-mail: muebles@berogas.com

**Bulegoak:** Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
 Fax: 943 675 421  
 E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)



*Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:*  
**I. Fdez Ornaburu Dra.**  
 (Medikuntza estetikoan masterra)  
**A. Ramirez Baigorri Dra.**

*Kursal*  
**ZENTRO MEDIKUA**  
[www.kursal.es](http://www.kursal.es)

**943 88 22 51**


Garmendia Otaola, 7 - behea  
**BEASAIN**

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

**NOBEDADEA**

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

Goierritarraren  
zenbaki honekin  
gehigarria

# Santa Fe Zaldibia

## San Migel Altzaga Gaintza Lazkao



**Goierri**tarra

### HAMABOSTEKARIA

#### Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea  
BEASAIN

#### Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

#### Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere  
gain hartzen derrigorrez,  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzukizunik.**

### Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama,

Itsasondo eta

Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

## AURKIBIDEA

**4. Iritzia:** Aitor Aranburu.

**5. Ingurugiro txokoa:** Astizko  
kobazuloak (II).

**6. Euskara txukuntzen:**  
'A' berezkoa (itsatsia, organikoa)

**7. Aholkua:** Emekin: emakume eta  
enpresari.


**8. Erreportajea:** Arriaran, bizi nahi  
duen auzoa.

**13. Elkarrizketa:** Fredi Pelaez  
musikaria.

**18. Garai batean...:** Bixente  
Aranburu, duela 60 urteko  
Ordiziako txirrindulari probaren  
irabazlea.

**22. Non zer.**

**26. Argazki zaharra.**



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Aitor Aranburu

# Munduko marka berria

**G**izateriak badu marka berria: 1.020 milioi pertsonen gosea pasatzen dute munduan. Gizateriaren historian, sekula ez da horrelako pertsona multzorik egon egunean 1.900 kcal. baino gutxiago ahoratuz. 1996an marka berria egin zenean 840 milioi pertsona ziren, eta FAO erakundeak erdira murriztu nahi zuen 2016rako gosea pairatzen zuten pertsonen kopurua. Ordundik hona etengabe goraka doa kopuru hau, urtean 35 milioi pertsona zuzenean goseak hiltzen dituelarik (horietatik 6 milioi umeak).

Beste hitz batzutan, munduko biztanleen 6tik batek ez du egunean otordu bat egiten. Kontraesana badirudi ere gehienak baserritarrak dira edo landa eremuan bizi dira. Bitartean gure munduko denda eta supermerkatuak janez lepo daude, bitxikeriak eta gutziak, baina inork pentsatzen al du nork eta nola ekoizten dituen? FAOk berak esaten du denontzat nahikoa janari ekoizten dela, baina ez da denengana iristen: non ekoizten den eta non kontsumitzen den ere garrantzitsua da beraz. Baita etekin ekonomikoak handitzeko non ekoiztu eta non kontsumitu behar den ondo antolatzea ere.

Hor dago arazoaren muina. Elikagaiak merkantzia huts bilakatu dira: ez da esku-bide bat, merkantzia bat baizik. Eta ez hori bakarrik, oinarritzko beste gaiekin batera (ura, lurra, energia, haziak...) estatuen arteko menpekotasun erlazioak areagotzeko arma bilakatu da elikadura estatu indartsuenentzat. Eta nola ez, hor daude

atzean guzti honekin negozioa egiten duten transnazional handiak ere. Bitartean baserritarrak krisian daude bai hemen eta bai mundu osoan.

Ez da erraz ulertzen nola litekeen egunero jateko ematen digun sektorea eten-gabeko krisian egotea mundu guztian. Garatu gabeko herrialdeetan landa eremuetatik hiri inguruko auzo txiroetara alde egiten dute laborariek, eta hemen berriz beste ogibide batzuetara doaz baserritarren seme-alabak. ONUren txostenetan garbi azaltzen da elikagaiak sortzeko modurik eraginkorrena baserri txiki-ertainetan ekoiztea dela (errekurtsoen aprobetxamendu egokiena hor ematen delako), eta populazioa handitzen eta baserritar kopurua txikitzen goazen heinean elikagaien krisia geroz eta nabarmenagoa izango dela. Baina nori axola horrelako kontuak? Askoz ere interesgarriagoak dira Usain Bolt-en errekorrak: harrigarria gizon honena. ETBn gehiago hitz egiten da espainiako toreroen txutxu-mutxuei buruz, Ipar Euskal Herriko baserritarren esne grebari buruz baino: markatakoa hau ere. Sistemaren propagandak moldatu eta uniformizatu egiten gaitu: eta denok gara ustez ulerkorrak, bakezaleak, ekologistak, solidarioak... Ispilu bana oparitu behar ligu-kete!

Ez dut pisua izan nahi kontu honekin, baina denok hausnartu behar genuke ea egiten dugun lanak sortzen duen egunero jan eta edaten duguna, automobila, etxea, arropak, telebista, mugikorra, ordenagailua... Ez dugu kontsumitzen dugun adina ekoizten, eta horretarako, beste batzuk ekoizten dutena baino gutxiago kontsumitu behar dute. Errekurtso naturalen xahuketa ere zuzenean lotuta dago (energia, ura, arrantza kaladeroak, meategiak...). Eta ez dut erori nahi errua denona denaren diskurtso erraz-tonto horretan, baina bai zein mundutan bizi garen onartu. Batzuentzat krisia etekinak murriztea edo oporretara ez joatea da, besteentzat hipoteka ezin ordainduz ibiltzea eta azkenekoentzat goseak hiltzea.

***Munduko biztanleen 6tik batek ez du egunean otordu bat egiten. Kontraesana badirudi ere gehienak baserritarrak dira edo landa eremuan bizi dira. Bitartean gure munduko supermerkatuak janez lepo daude.***



# kutxa



# Astizko kobazuloak (eta II)

*Ekoturismo eta jasangarritasunaren eredu*

Larraun bailaran (Nafarroa) kokatzen den Mendukilo koba jendeari irekitzeko egin diren ekintzak aipatzen dira artikulu honetan (jarraipena):

## Ebaluazio arkeologikoa

Egokitze lanak hasi aurretik, Artzainzulo deituriko sarrerako gelan hainbat azterlan eta indusketa arkeologiko egin ziren. Bertatik ateratako ondorio nagusia aurrehistorian koba momenturen batean okupatuta egon zela izan da. Gune hau ibilbide turistikotik kanpo geratzen da eta geozintzezko lamina batez eta inguruko materialez estali da. Honela etorkizunean egin daitezkeen indusketa arkeologikoetarako babes-tua eta prest geratzen da.

## Kobazuloaren argiztapena

Kobazuloan bi argiztapen mota ezarri dira: eszenikoa eta larrialdietarakoa. Biak ere automatizatuak daude eta alga eta likenen hazkundea ekiditeko pentsatuak dira.

- Argiztatze eszenikoa dinamikoa da eta denbora laburrez egoten dira piztuta. Honek bisitariak argien erritmoa jarraitzea behartzen ditu argiak, denbora baten ostean itzali egiten baitira. Honek alga eta likenen hazkundea ekiditen du eta gainera jendearen presentziak eragin dezakeen desoreka klimatikoak erregulatzen ditu.
- Bideko edo larrialdiko argiztapena oso intentsitate



*Mendukilo koba. Arg.: Javier Les*

txikikoa da eta beraz kontsumo txikikoa ere bai. Argiztapen honek irteerako bidea markatzen du eta argindarra joatekotan, bateria bati konektatuta dagoenez gidariak 15 minutuko denbora tartea du taldea kobatik ateratzeko.

## Bisiten gestio jasangarria

Mendukilo koban bisiten gestio kontrolatu eta jasangarria egiten da, bisitari kopurua mugatzen delarik. Horretarako oso garrantzitsuak dira egiten diren azterketa klimatikoak, batez ere kobako karbono dioxidoa eta tenperatura kontrolatzeko. Orain arteko datuek diotenez, bisitek ez dute kobaren mikrokliman eragin, bere kasa erregulatzen delarik.

## Lurpeko laborategia

Koban, jendeari ireki aurretik eta ondoren ere, azterketa ugari egiten dira. Besteak beste ondorengoak ebaluaketa eta azterketak

egin izan dira:

- arkeologikoak
- hidrokimikoak
- klimatikoak
- erradioaktibitate naturala
- faunistikoak (xaguxarrak eta troglobiosa edo kobetako fauna)
- geoteknikoak (kobaren segurtasuna bermatzeko)

Hauek guztiak kobaren karga ahalmena neurtzeko oso garrantzitsuak dira, koban turismoak izan dezakeen inpaktua ahalik eta txiki- kien izateko.

## Ingurumen heziketa eta sentsibilizazioa

Mendukilok turistez gain, eskola-ume ugariren bisita jasotzen du. Bertan sentsibilitea eta kontzientzia piztean oinarrituriko heziketa programa garatzen da. Lurpean dagoenaren zati txiki bat erakutsiz, gainerakoa babestearen garrantzia azpimarratu nahi da. Izan ere ezagutza da errespetuaren oinarria.

*Arantxa Bodego*

## JAKIN BEHARREKOAK

**Nafarroa 'transgeniko-rik gabeko eremu' izenda dezaten** eskatzen du Ekologistak Martxan elkarteak, laborantza mota horien areagotzeaz kezkatutik. 2008. urtean, Nafarroan, 5.150 Ha. arto transgeniko landatu zituzten; proportzioan, mota horretako landaketa gehien dituzten erkidegoetan hirugarrena eta laugarrena zabalera absolutuan. Aurtun, Nafarroako Gobernuak baimena eman du hango lurretan aldaera berriekin esperimenta dezaten, eta ITG Agrícola enpresa publikoak nekazariei aholkatzen die zenbait aldaera transgeniko erabiltzeko. [www.ekologistakmartxan.org](http://www.ekologistakmartxan.org)

**Kenia Kogeloko gazteek** Greenpeaceko eguzki belaualdiarekin batera, eguzki panelak ezarri dituzte Kogeloko eskolan eta AEBtako Barack Obamaren amonaren etxean, Mama Sarah. Gazte ekologista hauek "pobrezia energetikoa" eta klima aldaketari ekin nahi diete. [www.greenpeace.es](http://www.greenpeace.es)

## LIBURUA

'Un futuro sin petróleo' Roberto Bermejo (Los libros de la Catarata). Horren laburpena euskaraz, ELA sindikatuaren Manu Robles-Arangiz fundazioaren web orrian dago: <http://www.mrafundazioa.org/albisteak/roberto-bermejoren-petrolioaren-goi-muga-eta-horren-ondorio-sozioekonomikoak-argitalpena>.

# 'A' berezkoa (itsatsia, organikoa)

Maizpide  
euskaltegia

Ez dira gutxi izango, zorioneko "A" itsatsi hori dela eta, egin izan dizkiguten zuzenketak (gehiago edo gutxiago, denoi!). Ikusi, bestela, propio sortu dugun elkarrizketa, baina Goierriko edozein txokotan entzun genezakeena:

- Koxme, **gauz** bat esan behar diat!
- Bota, Julio, beldurrik gabe!
- Hi ez al daukek **anai** bat Madrilgo **akademi** baten, klaseren batzuk ematen?
- Bai, gizona! Baina han bakarrik ez dek aritzen! **Bidai** asko egiten dizkik, **probintziz probintzi** ibiltzen dek umeei irakasten, gure aita zanak erregalatutako **makil** beltza eskuan dola!
- Dedio, Koxme, hori gizona, hori! **Inbidi** latza ematen zidak!
- Hori bai, Julio, **famili** oneko umeei, e! Horregatik dik Rotxillek baino diru gehiago!
- Bai, mundu bonetan **alperkeri** galanta donak ez dik berehala dirurik egingo!
- **Egi** borobila, sozio, baina orain goaztek **eliz** ingurura, horko **izkin** baten dagoen jatetxera, Hontz zuria izenekorra, mokadutxoren bat egitera. Nire urdailak **premi** latza zuekek!
- Bai, **idei** ona, hirea! **Aitzaki** ona berriketan segitzeko!

Ez dakigu Julio eta Koxme *Anai Handia* jatetxetik bago janda aterako ziren ala ez. Garbi dagoena zera da, elkarrizketako hitz azpimarratuetan berezko "A" hori ondo baino hobeto jan zutela!!!

Zu zeu ere alor horretan "jatuna" bazara, egin begiratu ondorengo taulari:

## "A" berezkoa duten hainbat izen arrunt

|                      |           |              |                         |
|----------------------|-----------|--------------|-------------------------|
| Abantaila            | Burdina   | Hizkuntza    | Makina                  |
| Agentzia             | Dardara   | Idea         | Malezia                 |
| Aisia                | Denbora   | Ikastola     | Meza                    |
| Aitona               | Dotrina   | Imajina      | Natura                  |
| Aitzakia             | Egia      | Inbidia      | Neskatila               |
| Akademia             | Ekonomia  | Inportantzia | Okela                   |
| Alegia               | Eliza     | Itxura       | Ola                     |
| Amona                | Erregina  | Izkina       | Ordena                  |
| Anaia                | Erromeria | Justizia     | Ostia                   |
| Animalia             | Eskola    | Kaiola       | Panpina                 |
| Antsia               | Familia   | Kartzela     | Penitentzia             |
| Arbola               | Feria     | Kontzientzia | Pertsona                |
| Arnasa <sup>1</sup>  | Festa     | Koroa        | Pezeta                  |
| Arroa (pisu neurria) | Gauza     | Kultura      | Politika                |
| Ausardia             | Gaztaina  | Labana       | Polizia                 |
| Axola                | Giltza    | Leihatila    | Premia                  |
| Aza                  | Gona      | Literatura   | Probintzia              |
| Balea                | Grazia    | Lotsa        | Saltsa                  |
| Baratza              | Habia     | Lotura       | Teila                   |
| Birjina              | Harea     | Maila        | Zalantza                |
| Botila               | Heriotza  | Makila       | Zuhurtzia               |
|                      |           |              | Erreputaia <sup>2</sup> |

<sup>1</sup> Baina **bitz elkarketako lehen osagai** denean, *arnas* erabili: *arnas aparatua*.

<sup>2</sup> Azken adibideari erreparatuz gero, badira hitz gehiago erdarazko -AJE atzizkitik euskal -AIA eman dutenak: bidaia, pertsonaia, lengoaia, paisaia...

Ondorengo atzizkiek ere "A" berezkoa dute:

### -(k)eria

Alferkeria, Astakeria, Harrokeria, Handikeria, Tontakeria.

### -(t)eria

Gazteria, Gizateria, Langileria (langileak), Ikasleria (ikasleak), Irakasleria (irakasleak).

### -ezia

Ahulezia, Pobrezia, Malezia.

### -Kuntza

Irakaskuntza, Hezkuntza, Aldakuntza.

Badira, bestalde, "A" hori berezkoa duten sei hitz eza-gun (**burdina, eliza, hizkuntza, kultura, literatura eta natura**), baina izen elkarketan gal dezaketenak. Horiei -IA bukaera dutenak gehitu behar dizkiegu (**biologia, filosofia, familia, eta abar**). Nola gal dezaketen? Bada, honela:

### EGOKIA

Hizkuntz proiektua

Hizkuntza proiektua

Hizkuntza-proiektua

Kultur astea

Kultura astea

Kultura-astea

Famili arazoa

Familia arazoa

Familia-arazoa

### DESEGOKIA

\*Hizkuntz-proiektua

\*Kultur-astea

\*Famili-arazoa

Baina, kontuz!

### EGOKIA

Hezkuntza proiektua

Hezkuntza-proiektua

Eskola porrota

Eskola-porrota

Irakaskuntza sistema

Irakaskuntza-sistema

### DESEGOKIA

\*Hezkuntz proiektua

\*Hezkuntz-proiektua

\*Eskol porrota


\*Eskol-porrota

\*Irakaskuntz sistema

\*Irakaskuntz-sistema

Hi, Julio, hau ez duk, inolaz ere, penitentzia! Kar-kar!

Beste botila bat ekar ezak, Xatur, okela hori mama gozoaz lagunduta edateko!



*Koxme eta julio 'Anaia Handia' jatetxean majo edaten!*

Azken aldi honetan lan mundutik iristen zaizkigun berriak ez dira batere baikorrak: kaleratze masiboak, desentpleguaren hazkuntza, erregulazio espedienteak, etab. Egoera ekonomiko ezkor honen aurrean erabakiak hartzeko momentua dela uste dute askok eta garbi dago arazo honen aurrean norbere kontura enpresa sortzea aukeratako bat izan daitekeela. Emakumezkoen artean, gizonezkoek sorturiko enpresak ugari badira ere, nabarmen hazi da beren kontura lan egiten dutenen kopurua.

Frogatua dago beraz emakumeek ekimenerako geroz eta joera handiagoa dutela eta beren kontura lan egiteak hainbat abantaila ere ematen dizkiela (ordutegi malguagoak, kontziliatzaierako aukerak, garapen pertsonala...).

Oro har ordea, ekintzaile batek jarduera bat martxan jarri nahi duenean aurkitzen duen zailtasunik nabarmenena, finantzazioa edo diru iturria lortzean da-

tza. Honi aurre egiteko, administrazio publiko desberdinek hainbat diru-laguntza kudeatzen dituzten programak jarri dituzte martxan. Helburu bera dute denek: emakumearen auto-enplegurako ekimena sustatzea eta enpresari alorrean sartzeko bidea erraztea.

Hauen artean aipamen berezia merezi du Gipuzkoako Foru Aldundiak, ASPEGI-k eta Euskadiko Kutzak elkarlanean martxan jarri duten Emekin programak. Programa honek enpresa bat bere kontura sortzeko ideia duten edozein adinetako emakumeei laguntzea du helburu. Programaren barnean eskaintzen diren zerbitzuetatik garrantzitsuenak hauek lirateke:

- ✓ Enpresa-jarrierei buruzko tailerra.
- ✓ Bideragarritasun proiektuaren tutoretza.
- ✓ Finantzazioa lortzeko aukera (abala zenbait kasutan).
- ✓ Enpresa martxan jarrita urtebeteko aholkularitza.
- ✓ Lana eta familia batera-

garri egiteko neurriak.

Zerbitzu guzti hauek, Foru Aldundiak ekimenerako homologatuak dituen erakunde bidez eskaintzen dira eta guztiz dohakoak dira.

Lehen aipatutakoaren harira, badira laguntza honez gain baste batzuk ere:

- ✓ Eusko Jaurlaritzak ematen duen 6.000 euroko laguntza, horretarako eskatutako baldintzak betetzen badira.
  - ✓ Langabeziaren kapitalizazioa.
  - ✓ Inem erakundeak eskaintzen dituen laguntzak bai inbertsioen finantzaketarako baita maileguen amortizazioan laguntzeko ere.
  - ✓ Sektorez-sektoreko laguntzak: (Artisautza, proiektu berritzaileak...)
- Dudarik gabe, norberaren proiektuan sinestea, etengabeko lana eta zorte dosi apur bat beharrezkoak badira ere, ongi etorriak izango dira edonondik eskaintzen zaizkigun laguntzak.



**Idoia Oiarbide Nazabal**  
Gertu Enpresa  
Aholkulariak eta  
Abokatuak.

**PSIKOLOGI KLINIKOA**

**ARGI**

*Jose Ramon Pato Prieto*  
Psikologian lizentziatua  
Elkargokide zenbakia: E-2644  
RPS: 420/01

**AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041**  
**JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN**

Helduen,  
umeen,  
bikoteen eta  
sexologi  
tratamenduak

**SSANGYONG**

**LADA**

**ARANDIA**  
**GARAJEA**  
Autoen konponketa

N-1, z/g lurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

**maizpide 09/10 kurtsoa**

Ordukako ikastaroak.  
Euskara-planak  
enpresa eta  
erakundeentzat.

Barnetegian  
hilabeteko ikastaroak.  
Familia  
euskaldunetan  
egoteko aukera.

C-1 maila on-line.  
Autoikaskuntza.  
4. maila.

Larunbatetan  
goi mailako  
ikastaroak.

euskaltegia-barnetegia · lazkao · 943 88 92 31 · lazkao@maizpide.com



# I. Mendiko duatloia izango da urriaren 3an Arriaran, bizi nahi duen auzoa



**A**pirilean inauguratu zuten arriarandarrek Intxaurpe elkartea, bazkaltzeko edo afaltzeko leku soila baino gehiago izan nahi duen elkartea. Auzoa berpizten hasi nahi dute arriarandarrek eta horretan hasteko bilgunea behintzat badute.

Arriarandar erroak dituzten gazteak erakarrirri ditu elkartea. Kirol eta kultur ekintzak antolatu nahitu dizute. I. Mendiko Duatloia antolatu dute hasteko. Hemendik aurrera, Arriaranen etorkizunari buruz hausnartu nahi dute.

**"Eguneroko ogia, ogi bereziak  
eta pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

## ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

**Gurpil lanak,  
alineazioa,  
aluminiozko lantak**

**Filtroak, olioak,  
engrasea**

**Frenu pastilak, tubo  
eskapeak, bateriak**

**Harezko txorrotadak**



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



Intxaurpe elkarteak, berritu eta handitu egin dute arriarandarrek. Bazkide gehiago ditu orain, eta bazkaltzeko eta afaltzeko leku hutsa baino gehiago nahi izan nahi du: auzoaren bihotza. Aitor Mendizabal, Iñaki Aranburu, Goio eta Aitor Mujika elkarteak bazkideak mahaia- ren bueltan elkarte ditugu, urriaren 3an jokatu den I. Mendiko Duatloia aitzaki hartuta.

Aitor Mendizabal, Elkar- teko lehendakariak kokatu digu Mendiko Duatloia nondik datorren. “Intxaurpe elkarteak berritu eta handitu egin dugu Arriaranen. Baz- kari eta afaritarako leku hu- tsa baino gehiago izan be- har zuela eta, kirol eta kul- tura taldeak sortu ziren, he- rriari bizitasuna eman nahian. Goio eta Aitor Muji- ka, elkarteak bazkideak di- ra eta eurak duatloietan ibil- tzen direnez, mendi dua- tloia antolatzea pentsatu ge- nuen. Kultura taldea ere sortzeko ahaleginetan ari gara”.

Goio Mujikak gaineratu duenez, “gu mendiko dua- tloietan ibiltzen gara. Kan- poko karreretara joaten ga- ra. Korrika eta mendiko ko- rrika saturatuta dagoenez, zerbait ezberdina egitea pentsatu genuen”.

Pentsatu eta egin. Lehe- nengo edizioa prest dute arriarandarrek. Jendeak on- do erantzunez gero, aurrera ere, bide horretatik jarrai- tzeko asmoa dute.

Auzotarrek behintzat ondo erantzun dute. Auzo- lanean, ibilbidea txukundu baitute. Iñaki Aranbururen iritziz, “Inportantzia gehi- go dauka, ibilbide hori hor gelditzen dela. Aukera bat gehiago sortzen da, gehien- bat bizikletan ibiltzeko. Mendiko korrikarako ere bai”.

“Uda eta negu ibili lite- ke. Lokatza gutxi egingo da. Zenbait tokitara neguan ez dago joaterik”, gaineratu du Aitor Mujikak.



*Arriarango jaietako bazkaria frontoian.*

### **Elkartearen garrantzia**

Intxaurpe elkarteak dena den, Mendiko Duatloia an- tolatzearekin batera, baditu beste asmo batzuk ere. “El- kartearen helburua, elkarteak eta herria berzpiztea eta bi- zi pixka bat ematea da. Ea jendea zenbateraino anima- tzen den egunean bertan parte hartzeko”, dio Aitor Mendizabalek. “Hasieratik garbi geneukan: arriskua badago elkarte gehienak di- ren bezala, afariak eta baz- kariak egiteko izatea. He- men, elkartearen handitzea egin zen, jendea erakartze- ko behar bat zegoelako, pixkanaka husten eta hilt- zen ari da auzoa delako. Epe motzean ikusten ge- nuen gainera, desagertzea zuala auzoa eta aldi berean, inplikazio maila bat sortu

nahi dugu horrelako ekin- tzekin. Bi batzorde sortu di- ra elkarte barruan, kiroleko- ak eta kulturakoak. Horre- kin, ilusioa pixka bat sortu da eta inplikazioa ere bai, bertako jendea berriz ere bertara itzultzeko”, zehaztu du Aranburuk.

Eskaintza berri honekin, Arriaranekin zerikusia du- ten hainbat lagun hurbildu dira elkarera. “Gehienak, auzotik irtenda gaude. Mo- mentu honetan, auzoan bi- zitzen, 70 lagun inguru egongo dira eta 70etik %70a, jubilatua da. Horri buelta eman nahian hasi gi- nen, bai elkarte berritzen eta batzordeak martxan ja- tzen. 2005ean hasi ginen el- kartearen berritzearekin. Garai hartan, 73 bazkide geunden eta 73 horietatik

39, 70 urteren bueltan zebil- tzan. Auzotik irten den jen- dea ez bada itzultzen, 10-15 urteko epean auzoa desa- gertzera doa. Mugatuta geunden leku aldetik. Bea- saingo Udalarekin batera eraikin berri hau egin zen eta kanpora joandako jen- dea berriro itzultzeko balio izan du, eta elkarrekin ego- teko aukera izan. Pauso ho- ri eman da. 91-92 bazkidera pasatu gara eta jende gazte pilo bat itzuli da. Egin diren bazkide berri horietako gehienak bertakoen seme edo alabak dira. Orain arte harreman zuzenik izan ez dutenak, baina erroak he- men dituztenak. Alde horre- tatik ondo. Inplikazioa ba- koitzak, berak ikusten due- na emango du. Ikusiko du- gu. Ondo ateratzen baldin bada, indarra hartuko dugu, eta beste zerbait gehiago ere egin daiteke. Ikastetxee- tako umeekin ere kirolaren inguruan zerbait egitea ere pentsatuta dago. Umeentzat ez dago hainbesteko arris- kurik. Aukerak badaude eta ikusiko dugu aurrera begira zer ematen duen eta zenba- teraino animatzen garen,

**E**lkartearen handitzea egin zen, jendea erakartzeko behar bat zegoelako, Arriaran, pixkanaka husten eta hiltzen ari zen auzoa zelako.



## “Egoerari buelta emateko borondatea behar da”

**Auzoa berritu aipatu duzue. Zer behar du auzo honek? Zer eskatzen duzue?**

Zer behar duen auzoak? Auzoak, egoerari buelta emateko borondatea behar du, orain arte izan ez dena. Lehen esan dudan bezala, auzoetan, interesagatik edo interesik egon ez delako, hustutzen ari dira ia denak. Matximentia, Astigarreta, Garin, Arriaran, eta Beasainmendin bertan, ez da inongo planik aurrera eraman. Herriatik aparte gelditzen diren auzo hauetara, herrian bertan nahi ez ziren industrialdeak, zaborteziak eta gainontzeak ekarri dira. Arriaran, 300dik gora biztanle izatera iritsi zen auzoa izan da. Kanpotar jende asko izan zen bere garaian eta ez ziren errotu, transito lekuak izan dira. 1965ean izan zuen biztanlerik gehien Arriaranek: 350 biztanletik gora. Baina gero, jende hori, pixkanaka, Beasain, Ordizia edo Lazkao aldera joan da. Oraingo arriskuetaiko bat ere hori ikusten dugu: etxeak egin eta kanpotar jendea etorri eta besterik gabe herria bete. Ikerketa sakonago bat egin behar da: zer nahi den eta zer behar den, auzoek izan dituzten ohiturak eta izakerak mantenduz.

**Etxeren batzuk egiteko asmoa ere bada.**

Bai, onartuta dago. 40 urtetik gora goaz gu eta garai hartan ezin zen etxebizitzarik egin. Lehenagoko etxeak daude bertan, etxe zaharrak, eta orain dela 15-20 urte baimenik ez zen ezer eraikitzeke. Azkeneko arau subsidiarioetan, 12na etxebizitzako bi etxe bloke egitea onartu zuen. 24 etxebizitza guztira. Horrekin irtenbidea emango zaiola eta berriz ere bizia sortuko dela Arriaranen? Ez dut uste, zerbitzu aldetik ere bultzada bat eman behar baitzaio. Hasteko, gasik ere ez dago. Telefono linea ere garai batekoa. Autobusa egunean behin etortzen da, mutiko batekin. Alde horretatik hutsune dezente daude jendea erakartzeko. Ez da herri bat izango balitz bezala, Mutilon gertatu den bezala. Mutilon, orain 10-15 urte nahiko hila ikusten zen. Gaurko egunean, herri dotore bat jarri dute. Beste hainbeste, Zerainekin eta Gaintzarekin. Herriak dira, udaletxeak dira; eta

Arriaran ez da udaletxea. Ez dago auzotarren esku. Inplikazioa behar da eta norbaitek sinistea auzoek ere bere nortasuna badutela eta berriro horri buelta eman behar zaiola. Hori ez da lortzen etxebizitzak bakarrik eginda.

**Plan osoago bat eskatzen duzue, beraz.**

Bai. Ez da partxeo bat egin eta martxan jarri. Ikusi egin beharko da, hitz asko egin beharko da, zer nahi dugun, nola nahi dugun eta zenbateraino gauden prest bide hori errazteko. Askotan, geure buruari bakarrik begiratzten diogu. Guk ere errezena egin dugu. Ez zegoen etxerik egiterik eta alde egin genuen. Orain dela 20 urte hasi baginen plan honekin, guk ere beste zerbait egin ahal izango genuen, orain arte egin ez duguna. Ikusi beharko dugu zer nahi dugun eta pixkanaka hasi. Lehendabizi, Arriaran mantentzea nahi dugun ala ez. Berdin zaigun hiltzen uztea ala ez. Hori da erabaki beharrekoa. Ikusten baldin badugu, buelta ematea merezi duela, aukerak zeintzuk diren ikusi beharko dugu. Beste edozein ekitaldi antolatzen den bezala, beste inplikazio batekin, horren atzetik joan beharko gara. Baina lehenengo galdera hori da: auzoa hiltzen utzi nahi dugu ala ez? Orain dela lau-bost urte elkartearen kontuarekin hasi ginenean ere horrekin hasi ginen. Hiltzeko arriskua ikusten genuen.

**Elkartearekin ez duzuela hiltzen utzi behar esan nahi duzue?**

Ez da elkarteak bakarrik. Elkarteak izango da auzo honen bihotza, baina bihotzari jaten eman behar zaio. Bihotzari jaten ematen ez bazaio, geratu egiten da. Orain ikusiko dugu. Behar hori sentiarazi behar diogu jendeari ekitaldi bidez-eta. Arriarana hurbilduz, hitz eginez... Orain arte, jende batekin, urteetan, harremanik ere ez zegoen kanpoan bizi ginelako. Orain hasi gara, ikusten ez genuen jende horrekin berriz ere harremanak izaten. Urte batzuetan lan hori egin beharko dugu eta denok ados baldin bagaude beste pauso bat emateko, ikusiko dugu nola egin. Zerbait egiteko asmotan gaude.



eta jendeak zenbateraino behar hori ikusten duen. Azken batean, desagertzea zihoan egoera batetik, bizi-berritze plan bat martxan jartzera pasatu gara. Ilusioa momentuan badago. Hasierako ekitaldietan desgastea ere handia izango da baina emaitzak onak baldin badira aurrera egiteko asmoarekin”.

Horrelako auzoetan, elkarte batek duen garrantzia azpimarratu nahi izan dute arriarandarrek. “Elkartea, orain arte, apaizetxean egon da. Herriko bilerak egiten zen lokala elkar-tearen inguruan egin dira hemen egin diren gauza apurrak. Auzolanean, zubia, pilotalekua... egin diren obra apurrak”, gaineratu du Aranburuk.

### Auzolanaren garrantzia

Arriarandarrek, beste gai bati ere garrantzia handia eman diete: auzolanari hain zuzen ere. “Auzolanaren kontzeptua berriz ere martxan jarri nahi izan dugu. Ikusten da gero eta gizarte egoistagoa dela eta Euskal Herrian bere garrantzia izan du auzolanak. Era horretara



funtzionatu izan da baliabide gutxiena zuen lekuetan. Horietariko bat, Arriaran izan da. Funtzionatzeko

modu polita dela iruditzen zaigu, aportazioekin. Zure zerbeit bezala sentitzea dakar auzolanak, zure izerdia-

rekin egin baita. Inaugurazio ekitaldian azpimarratu genuen puntuetako bat horixe izan zen. Ikusten da, auzo txiki hauek beti izan direla pixka bat baztertutako gunek. Horri buelta emateko aukeretako bat, edo ia-ia bakarra, jendearen inplikazioa da. Hona ez da inor etorriko halako inbertsioa egitera. Baztertuta daude beste funtzio batzuetarako: urtegia egiteko, zabortegia egiteko, industrialdeak egiteko... horretarako daude utzita”.

**E**lkartea sortu zen eta elkartearen inguruan egin dira hemen egin diren gauza apurrak.

Auzolanean, zubia, pilotalekua...

## ZAHARRA • BERRI

### IGELTSEKITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida

943 180 372

651 700 439

aiakoerrota@terra.es

ATAUN



Eraikuntzak

Gremioen koordinaketa

Erreforma orokorrak

Teilatuak

## SOLOZABAL

### AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

# Urriak 3: I. Mendiko duatloia

Intxaurpe Elkartek eta Trigoi, Goierriko Triatloi taldeak, elkarlanean antolatuta dute Arriarango I. Mendiko duatloia. Euskadio Federazioaren barruan sartuta, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak jokatu dira, proba bakarrera.

Guztia antolatuta dute arriarandarrek. “Trigoi lehen ere ohituta dago karrekar antolatzen, eta bazekiten zein pauso eman behar ziren. Federazioan horregatik lan errazteagatik sartu gara. Irteera, helmugak, paperak... berak egiten ditu, erraztu egiten da”, dio Goio Mujikak.



*Ibilbidea auzolanean txukundu eta prestatu dute.*

## Hiru zati

Urriaren 3an izango da proba. Arratsaldeko 4etan, korrika aterako dira partehartzaileak Arriarango plazatik. Irteera eta helmuga bertan izango dira. 6 kilometroko ibilbide bati itzuli bat eman beharko diote lehenengo kirolariak. Bigarren sektorean, mendi bizikletaz, 10 km ko barrutian 2 itzuli burutu beharko dituzte, 20 kilometro osatuz. Duatloi proba korrika bukatuko dute, hiru kilometro eginez. Probaren amaieran txirrinduak garbitzeko zerbitzua eta duxak egongo dira. Partaide guztien artean opariak zozketatuko dira eta askaria antolatuko da bertako elkarteak.

Izen emateak, Euskadiko Triatloi Federazioak kudeatuko ditu [www.triatloi.org](http://www.triatloi.org) webgunetik. Federatuek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta federatu gabeek, 20 euro. Partehartzaile kopurua mugatu egin dute antolatzaileek: gehienez ere, 100 partehartzaile. Webguneak behintzat harrera ona izan du eta egunero 100 bisita izaten ditu webguneak. “Azken

egunotan mugimendua ikusten da Arriaranen ere. Jendea badator ibilbidea ikustera. Interesa piztu du probak”.

## Sari ugari

Goio eta Aitor Mujika, mendiko duatloietan ibiltzen diren kirolariak dira. Beraiei gustatuko litzaieken moduko proba antolatzen saiatu dira. Besteak beste, sari ugari prestatu dituzte. Lehenengo hamar sailkatuentzat, emakumezko zein gizonezkoentzat, garaikurra eta dirua izango da. Junior, sub 23, beterano eta taldeak ere bai.

Lasterketa bukatzen duten partaide guztientzat poltsa. Horretaz aparte, zozketak ere izango dira: Razesa kuadroa BTT karbonozkoa, 4 bazkari (bi pertsonantzat), 4 asteburu landetxean (bi pertsonantzat), txuleta, arkumea, oilaskoak...

## Herrikoiei deia

Arriarango probak Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketen izendapena badarama ere, normalean txapelketetan parte hartzen ez duten

horiek animatu nahi dituzte arriarandarrek. Probatu eta parte hartu dezatela. “Mendiko duatloirik ez dago inguruan. Amasan bat bada, baina oso herrikoa da. Orduñan ere bada, baina beste formato bat dauka, korrika eta bizikletan. Federazioak antolatzen dituenak, korrika bukatzen dira. Ibilbidea zaila ez da, gainean egiten duzu eta. Aldapatxoak badaude eta jendeak esaten du nahiko gogorra dela. Baina duatloi probak, gogorrak ere badaude. Hemen ez dago Nafarroan eta bezala, ibilbide laua jartzerik”, dio Goio Mujikak. “Jendeak uste du mendikoa izateagatik gogorra dela baina ez da horrela. Mountain biken jende asko ibiltzen da. Trabesiak antolatu eta jende asko joaten da. Horiek askoz ere gogorrak dira. Gogorra zela zabaldu zen, baina etortzen ari den jendeak, hain gogorra ez zela esaten du. Animatu jendea, etorri eta ikusteko”, gaineratu du Aitor Mujikak.

Data aldetik begirata, egokia dela uste dute arriarandarrek. “Lurra lehorrena

ere orain dago. Eta larrak ere indar gutxiago izaten du”, diote.

## Auzolanean

Ibilbidea auzolanean txukundu eta prestatu dute. Pozik daude emaitzarekin. “Orain dela bi hilabete ibilbidea ikusi eta ezinezkoa zela zirudien. Bilboko jende bat etorri zen ibilbidea probatzera eta atzera egin zuten. Auzolanean, elkarre atzealdea, pilotaleku ingurua... txukundu ziren. Jendeak erantzun egin zuen eta duatloierako ere auzolan deialdia egitea pentsatu genuen. Jendea elkartu zen. Ibilbideko zati batzuetan, oinez, justu-justu pasatzen zen. Garbitu eta oso txukuna gelditu da. Ikustekak ere poza ematen du. Erabili ere ez zen egiten bidea zen zati batean. Otea, larrak... itxita zegoen. Jabeekin hizketan aritu eta arazorik ez zegoela, eta denok gustura. Mantentzeko asmoa daukagu. Negurako ere ondo dago txirrinduan ibiltzeko. Todounoa botatzen aritu gara... neguan ere ez da lokatza askorik izango”.



*Fredi Pelaez musikaria:*

**“Jazza jotzetik  
ezin da bizi,  
gustatzen  
zaigulako  
egiten dugu”**



**over** Urraki  
*Bidaietan adituak*

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**  
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79  
urraki@over.es www.over.es

**AMEB**  
  
*Sagardotegia*

**Erretegi bezala  
zabalik**

- \* Eguneroko menuak
- \* Karta zerbitzua
- \* Ospakizunak
- \* Plater konbinatuak

**Zubierreka,9 943 16 25 23 LAZKAO**



## Hammond organo jolea

Gutxi dira Euskal Herrian, hammond organoa jotzen dutenak. Horietako bat, Fredi Pelaez lazkaotarra da. “Hori bai, pedalarekin animatu den bakarra, ni naiz”. Autodidakta da Pelaez. “Kontserbatorioan aukera izan nuen organo klasikoko irakasle bat izateko. Loreto Imazekin aritu nintzen, batez ere, pedal teknika ikasteko”.

Eskuekin batera, bi oinak ere erabiltzen ditu doinua ateratzeko. “Forma onean egon behar da. Leher eginda bukatzen dut kontzertuetan”, adierazi du lazkaotarrak. Gutxi eza gutzen den instrumentua da. “Jotzen ere jende gutxi daki. Gaur egun zortea daukagu internetarekin. You Tubeko bideoak ikusten aritzen naiz, elizako organista askok bideoak jartzen baitituzte. Hammond zaleontzat izugarritzko eskola da”.

Musika tresna berezia da hammond-a. “Amerikan protestanteak dira asko. Erljio protestante asko daude. Katolikoek baino diru gutxiago daukate. Eliza katolikoetan, tubozko organoa egon da baina dirutza handia balio dute. Horrelako organo batek, gaur egun, 100 milioi pezeta balio dezake. Hammondek pentsatu zuen, ekonomikoki bideragarria izan zitekeen zerbaitekin egin behar zela, erlijio guztientzat. 1935ean egin zen lehenengo hammonda. Nirea, 1963koa da”, azpimarratu du Pelaezek. “Elektromagnetikoa da. Altaboza dago, danborra eta bi tronpeta, bueltak dabilzanak. Doinua altaboz batetik ateratzen da eta bi tronpetak bueltak dabilzanez, doinua zabaltzen da”, gaineratu du. Instrumentu delikatu da eta kontzertuetarako alokatu egiten dute hammonda.

Pelaezek bere hammonda dauka, Pottoko estudioan. Erosteko “Odisea izaten da. Hammonda alokatzen didana laguna dut eta bere bidez lortu nuen. Frantzia Iparraldetik, Normandia aldetik ekarri zidaten”, zehaztu du.

Fredi Pelaezek 34 urte ditu. Musika odolean daramala esan daiteke. Pelaeztarra da. Alberto Pelaez zenaren semea; Eganeko Pelaeztarren iloba. Era batera edo bestera, txikitatik bizi izan du musika lazkaotarrak. “Gogoratzen naiz txikitan aitarekin joaten nintzela festa askotara. Udan, oporretan nengoenean, beraiekin joaten nintzen, pozik, festarik festa. Arrano Beltza 1980an sortu bazen, ni 6 urterekin, aitarekin joaten nintzen”.

Musika ikasten hasi eta pixkanaka musikaren barneratzen joan da. “16 urterekin, aitarekin eta, Arrano Beltzan baxu jolea izan zen Iñigo Apaolazarekin, ez-

**U**dan, oporretan  
nengoenean,  
6 urterekin,  
aitarekin, Arrano  
Beltzekoekin joaten  
nintzen, pozik,  
festarik festa.

kontza batzuetan jotzen hasi ginen, erromeria txiki batzuk... Urteetan aritu nintzen aitarekin jotzen. Teklatua, eskusoinua jotzen nintzen. Hori bide bat izan da”, dio Fredik.

Gaur egun musikaren erregistro ezberdinetan dabil. Piano Jazz karrera egin dauka. Musika Eskolako irakasle, Drindotsekin erromerietan jotzen du, jazz taldea du, musika estudioa sortzen ari da... Fredi Pelaezen orain arteko musika ibilbidea errepasatuko dugu hurrengo lerroetan.

**Musika betidanik bizi izan duzu, era batera edo bestera. Musika ibilbide-**



### ari serio heltzea noiz erabaki zenuen?

Hori nahiko gauza xeblebra izaten da mundu honetan. Gauza guztiak nahasten dira nire kasuan. Batetik, erronomia giroa, festeta, musika jotzen ibiltzen den modu hori. Bestetik, akademikoki formatzen joatea dago, ikasten. Garai batean, festetan jotzen zuten musikari asko, autodidaktak izaten ziren. Nire aita eta osabak-eta, nahiko autodidaktak izan ziren. Ni behintzat ikasten nengibilen. Baina ez nintzen oso konstantea. Ez ona eta ez txarra, baina inkonstantea. Hasi eta utzi egiten nuen. Boladaka. Gauza batzuk ikastea kosta egiten zitzaidan eta hasi eta utzi ibili nintzen.

Jazzaren mundua gustatu egiten zitzaidan betidanik. Bluesa ere bai... beste gauza bat ere bai: ez dakit zergatik, txikikatik, instrumentu bat neukan buruan sartuta: hammond organoa. Pianotik pixka bat aldendu egiten da. Ezberdina da. Doinu aldetik, instrumentua bera... diskoak entzuten nituen eta aitari galdetzen nion ea zein instrumentu ote zen. Hammonda zela esan zidan. Gustatu egiten zitzaidan. Instrumentu hori entzunez, pixkanaka hammondakin zeuden beste disko batzuk entzuten hasi nintzen. Jazzeko diskoak entzuten hasi nintzen. Pixkanaka mundu horretan

sartzen zara. Ibilbide horretan, halako batean, jazz generoa edo estiloa ondo ikasi nahi nuela erabaki nuen. Donostian, Jazzle izeneko eskola bat zegoen, Inaki Salvadorrek zuzentzen zuena. Han ikasten hasi nintzen. Erromerietan jotzen, klasikoa ikasten eta niretzat berria zen eta liluratzeko ninduen jeneroa ikasten ari nintzen. Urteak eraman nituen horrela. Halako batean, hango maisu batek esan zidan, zergatik ez nintzen Musikenara joaten, jazzeko goi maila jarri zutela eta.

### zi al liteke? Eskolak ematea beharrezkoa al da musikatik bizitzeko?

Eskolan ondo pasatzen dut ikasle askorekin baina zukutu egin du. Indar asko kentzen dizu.

Nik eduki nuen garai bat, 20 bat urte neuzkala, ez nekiela oso ondo zer egin. Beti erromerietan jotzen ibiltzea ez zen gehien gustatzen zitzaidana. Jazza ikasten hasi aurretik, musika uzteko ahalegina egin nuen. Baina hilabete bat iraun nuen. Ondo edo gaizki, biziko gara. Ni musikaria

dua egin behar du. Musika-ri batek hori galtzen badu, behera joaten da. Batez ere, burua. Askotan ezin izaten da mantendu baina gero nabaritu egiten da, asko gainera.

### Jazzak mundu berri bat ireki al dizu?

Goierrin, Lazkaon, jazzarekin konesio hori sentitzen duzun pertsona bakarra edo bakarranetakoa zarenean, eta kanpoko inguruarekin kontaktu handirik ez baldin badaukazu, desertuan bezala geratzen zara. Jazza gustatu bai, baina inoiz ez duzu pentsatzen ezer egiteko modurik izango duzunik. Horrek barrera bat sortzen du. Egia esan, Musikeneko aukera hau, ez da ikasteko bakarrik izan. Ikastekoa, noski, oso ona izan da. Oso irakasle onak izan ditugu, bai hemengoak, bai kanpokoak. Baina niretzat izan dudana aukerarik onena, desertu guztietakoak elkartu garelako. Bilbokoa, Iruñeakoa, Zumaiakoa... punta banatako jazz-zaleak elkartu gara. Guretzat berehaldiko aukera izan da. Taldeak sortu ditugu, proiektu ezberdinak. Jazzaren hizkuntza gustura sentitzen garenak hortxe gabiltza gure musika egiten, gure sentsazioak adierazten. Konposizioak egitetik aparte, bakarsaioak edo soloak egiten dira, inprobisazioak egiten dira. Esan nahi duzuna esateko aukera duzu.

**J**azza ikasten hasi aurretik, musika uzteko ahalegina egin nuen. Baina hilabete iraun nuen. Ondo edo gaizki, biziko gara. Ni musikaria naiz, onerako eta txarrerako.

Ahaleginduko nintzela eta Musikenen sartu nintzen. Karrera egin nuen. Hori izan da ibilbidea. "Mertzenario" bezala ibiltzea ere tokatu zait. Alegia, beste artista batzuentzako grabatzera edo jotzera joan.

Ibilbide horretan, rock & rolla egiteko gogoia eduki nuenean, Beasainen eduki genuen talde bat, Sin Red.

**Denetik pixka bat egiten duzu beraz. Musikatik bi-**

naiz, onerako eta txarrerako. Momentu horretan esan nuen, musika da nirea.

### Hainbeste gauza eginda, denbora nondik ateratzen duzu?

Ez da jotzea bakarrik. Ba-koitza bere instrumentuarekin egon behar da. Mantendu egin behar da. Edozer dela eta, bolada batean ezin baduzu mantendu... Goi mailako kirolariek forma mantentzeko entrenamen-



# ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO  
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN  
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: [ondoeta@ondoeta.com](mailto:ondoeta@ondoeta.com) [www.ondoeta.com](http://www.ondoeta.com)  
© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72  
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



**SILVIA MIRASCASAYAS**  
ODONTÓLOGA  
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87  
SAN INAZIO KALEA, 2  
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



# Organiks

## Udan jazzaldiak izaten dira. Hortik aparte, jazzak ba al du lekurik?

Zaila da, dagoen kulturagatik. Ez dut esango ez dagoenik kulturarik. Dagoen kulturagatik, jenero hau zabaltzea ez da erraza. Trikitixa zabaltzea oso erraza da. Jazza zabaltzea oso zaila da. Baina ez hau bakarrik. Kontzertu klasikoak zabaltzea ere zaila da. Hori da, dagoen kulturagatik. Jendea ez dago oso prest, según ze kontzertutara joateko. Plaza batean jarriz gero, bueno. Baina areto batera joatea... Merkantilismoak ere egiten du. Ezaguna den gauza batera, jendea errazago joaten da. Ezezaguna den gauza batera gutxiago.

Aurtengoak grazia egin dit. Guk, urteak daramazkigu jazzaldietan jotzen. Bosgarren edo seigarren urtea izan da aurtengoa. Baina gertuko jendea aurrean konturatatu da. Kurioso da. Zergatik, galdetzen duzu. Aurrean propaganda gehixeago egon delako, disko bat ateratu dugulako, komunikabideetan gehiago azaldu garrelako. Komunikabideetan azaldu denez, herrikoen bat ikustera joan da, zabaldu egin da... Klean jendeak gelditu egiten zaitu... Ni-

retzat urteroko gauza bat izan da.

Baina noski, musika hau zabaltzea zaila da. Zaila da Kultur Etxeetan proposamen hauek saltzea. Leku batzuetan beste batzuetan baino gehiago. Baina kultura arazo bat da. Besterik ez da. Nik ikusten dut, lekua- ren arabera dela, nahiz eta herri kaskarragoak izan, oso ohituta daude edozein motatako kontzertuak eramaten. Kultur zinegotzi edo teknikari batzuk behintzat, kontzientzia bat dute, denetik programatu litekeela. Beste leku batzuetan ez dago kontzientzia hori. Gauza kultural bat da. Ez da beharrezkoa ikusten eta kitto.

Jazza jotzeko gure aurrerak dira, jazz jaialdiak edo klub txikiak. Hor oso gustura sentitzen gara. Gertuko zerbait da. Eszenatoki handi batean jotzea polita da. Baina jendea hurbil daukazu- nean sentitzen duzun xarma ez da sentitzen eszenatoki handi batean. Hortik kanpo, kultur etxeetan jo liteke, antzokietan... baina merkatu hori zaila da.

Askotan kontzertuak antolatzen dira baina gero propaganda gutxi egiten zaie. Marketing egokia behar da.

2006. urtearen bukaeran sortu zen Organiks taldea, Dynamic Trio (Juanma Urriza, Fredi Pelaez eta Mikel Romero) taldeari bi saxofoi gehituta (Julen Izarra eta Jose Gallardo). 2006tik aurrera, areto eta eszenatoki askotan jotzeaz gain, Donostia eta Gasteizko jazzaldietan ere aritu izan dira. 2009ko apirilean, euren lehen grabazioa egin zuten. "Jazza egiten dugu, baina oinak mugitzea atsegin dugula ahaztu gabe, musikak gu dantzan jartzea gustatzen zaigu, horregatik, gure kantetan swing-a dago, noski, baina funky-ak, groove-ak, latinak... ere bere lekua hartzen dute. Gure musika oinetara zuzendua dago... burua ahaztu gabe".

## Donostian jotzen omen duzue gehiena. Euskal Herritik kanpora ateratzen al zarete?

Talde bezala, Kantabriara joan gara, Gasteizera... ez gara asko atera. Madrid, Bartzelona eta Valentziara joan nahi dugu diskoaren aurkezpenarekin.

Espainiako jazzaldietan egon nahi dugu. Hammondakin jotzen dugunez, nahiko astuna da. Hammonda lortu beharra dago. Alokatu egin behar da, furgoneta ere bai... Ez da erraza. Diskoaren kontuarekin egin nahi dugu zerbait. Gure asmoa da Espania mailan dauden jaialdietan jotzea.

Jazza jotzetik ezin zara bizi, gustatzen zaigulako egiten dugu.

## Dantza eginarazi nahi omen diezue entzuleei.

Hori da gure slogana. Burutik oinetara doan musika. Jazzaz esaten da, ez dakit zergatik, musika intelektuala dela, entzuteko musika dela, gustatu behar zaizula entzuteko... Beste aldetik, funky musika dago, dantza egiteko musika. Gu, bi

mundu horien tartean gaudela. Dantzarako balio duten abesti batzuk egiten ditugu, baina jazzetik urrundu gabe. Melodiak, estrukturak, abestiak egiteko modua jazz estandarrean oinarrituta dago.

## Jendea jazzarekin dantzan jartzea erraza al da? Edo errazagoa da erromerietan jendea dantzan jartzea?

Erromerietan ez daukazu gauza handirik egin behar jendea dantzan jartzeko. Normalean, jazzeko gure kontzertuetan, jendea eserita egoten da. Beti egoten da norbait burua mugitzen duena. Baina gure asmoa ez da dantzan jartzea, baizik eta, erritmoa eta dantzarako gogoia transmititzea.

## Erromerietan jendeak gaur egun ez duela dantzarik egiten esaten da.

Kostatzen da bai. Tokiaren arabera da. Alkoholarekin arabera ere bai. Ordu bate- tik aurrera, oso erraza da. Jendea ondo bustita doa. Orduan, zaila, gelditzea izaten da. Batzutan, ezin bukatu ibiltzen gara.

**M**usikenen desertu  
guztietako  
jazz-zaleak elkartu gara.



Beasaingo Katea auzoko industrialdean, estudioa eraikitzen ari da pixkanaka-pixkanaka Fredi Pelaez. Aitak deitzen zion eran, 'Pottoko' izena jarri dio bere txokoari. Estudioaz gain, entseiu lekua ere izango da Pottoko.

"Musika estudioa, nire beste pasio bat da. Musikarekin batera, beti gustatu izan zait, familiarik etorriko zait hori ere, nire aita ere ibiltzen zen altabozekin eta... Askok gustatu izan zait hori ere. Urteak dira zuzeneko doinua egin eta grabatzen hasi nintzela, medio gutxirekin. Pixkanaka-pixkanaka mundu horretan sartzen zara... Horretan esan dezaket, autodidakta naizela honetan. 2 urtetan Juanan Ros goierritarrarekin egon naiz estudio batean eta harekin ikasteko aukera izan nuen. Etengabeko formakuntza da. Orain arte ez dut leku bat eduki lan horiek behar bezala egiteko. Txoko bat prestatzen ari naiz nire gauzetarako. Gustura nago. Etxean behintzat ez dut hotsik aterako. Hammonda ere bertan daukat. Pianoa ere han jarriko dut. Estudioaz gain, entsaioetarako lekua ere izango da. Pixkanaka egokitzen ari naiz. Azkenean nahiko obra handia izan da, hasieran uste baino gehiago", dio Pelaezek.

Estrenatu dute dagoeneko estudioa. Lazkaoko gazte talde baten diskoa grabatzearekin batera, Organiks taldearen lehenengo diskoa, apirilean bertan grabatu zuten. "Oraindik nahiko modu probisionalean. Pixkanaka gauzatxoak egiten ari naiz. Ez dut horretara bakarrik dedikatu nahi. Askok gustatzen zait baina ez ninduke beteko estudioko lanak bakarrik. Oso gogorra da, oso neketsua. Oso polita, baina horretan bakarrik aritzea oso-oso neketsua da", zehaztu du lazkaotarrak.

### Zuzenean grabatzeko estudioa

Estudio berezia da Pottoko. "Musikariontzat beti egon da arazo bat: non grabatu. Dena, beti bezala, diruagatik. Arazoa beti dirua da. Jenero ba-

## 'Pottoko' estudioa



tzuk, edozein estudio txikitik egin dezakezu. Musika mota asko banaka grabatzen da. Baina jazzak, denok batera jotzen grabatzen da. Baldintza hori betetzen duten estudio oso-oso gutxi daude eta daudenetan aurrekontu handia behar izaten da. Horri gehitzen baldin badiozu, jazz taldeetan isats-pianoa behar dela, edo gure kasuan hammond organo bat... estudio handietan ez daude eta alokatu egin behar dira. Oso garestiak dira. Ondorioz, jazzean dabilen musikaria ez da animatzen grabatzera. Eta lastima da. Edozein punk, heavy, rock, ska...talde elkartu eta urtebetean badaukate beraien maketa. Benetan musikari handiak direnek, zerbait esateko daukan jendeak ez dauka modurik grabatzeko, arazoa, dirua delako. Ni zaku horretan sartzen nintzen. Hausnarketak eginez, nire txokoa eduki eta etengabe produzitzen egotea nahi nuela pentsatu nuen.

Bueltak emanez, istorio honetan sartu nintzen. Estudioa taldeak zuzenean grabatzeko dago prestatuta. Jazzaren munduan dabilen jendeak aukera izango du. Estudioarekin jazz edo musika klasikoa grabatu nahi dut. Estudioa, pianoarekin eta hammonda-rekin aurkitzea zaila da. Piano bat edukitzeak bakarrik musikaria erakarriz egingo du".

Lan txikiak egiten ari da dagoeneko eta hainbat proiektu baditu eskuartean. "Zabaltzen ari da estudioa egiten ari naizela eta jendea ari zait deika. Orain dela gutxi, Ruper Ordozikarekin grabatu dut. Azkeneko diska New Yorken grabatzen ditu hango musikariekin, baina hammonda sartu gabe zegoela eta niri eskatu zidan sartzeko. Horrelako jendea zuregana etortzeak, ikutu egiten zaitu. Sartu berria sentitzen zara eta jende bat deika hasten zaizu. Politak, oso-oso polita".



**ZEGAMA**  
**OKINDEGIA**  
*Eskuz egindako*  
*ogi naturala*

### SALMENTA PUNTUAK:

**Beasain:** Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretxue:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

☎ 943 80 10 66 Intxausti eremua, 14G-14H nabeak **ZEGAMA**



*Bixente Aranburu, duela 60 urteko Ordiziako txirrindulari probaren irabazlea:*

## “Orduan ibilbide txikiagoak izaten ziren baina karreterak ere halakoak!”

**A**urten bete dira 60 urte, Bixente Aranburuk Ordiziako klasika irabazi zuela. 1949a zen eta 20 urte zituen. Bahamontesen garaiko txirrindularia da Bixente Aranburu ‘Santa Lutxi’.

Profesionaletan aritu zen, hori bai, gaur egungo txirrindularitzarekin ez zuen batere zerikusirik. 1940-50eko hamarkedatako txirrindularitzaren lekuko izan zen Aranburu. 80 urterekin, oraindik txirrindua hartzen du tarteka. Hanka eta buru onak ditu, Ormaiztegin jaio, Santa Lutzin hazi eta Beasainen bizi den txirrindulari ohiak.

1947an, 18 urterekin hasi zen txirrindularitzan, “karrera txikiak egiten. Lanera Zumarragara joaten nintzen Ezkioetik. Eguenero, 10-15 kilometro egiten nituen. Han bertakoak gutxi ibiltzen ziren eta denei irabazten nien. Horrela hasi nintzen. Azpeitira joan nintzen karrera bat korritzera. Han bi anai oso onak ziren. Haiek minutu bat kendu behar ziguten. Kilometro gutxi ziren. Hango anai batek pintxatu egin zuen eta erretiratu egin zen. Nik beste anaiarekin ihes egin nuen eta Loiolan buelta hartu genuenean, kilometro bat falta nituen eta biok elkarrekin ginen. Kilometro

batean 47 segundu kendu zizkidan. Baina saria jaso nuen”.

### Bizikleta berria

Lanean aurreratutakoarekin, bizikleta berria erosi eta serio heldu zion txirrindularitzari. “Zumarragan lan egiten nuen eta txanpon batzuk aurreratu nituenean, auzoko batek, Eibarren GAC-en ezagun bat zeukala eta GAC bat erosi nuen. 1.250 pezeta ordaindu nituen. Bizikleta berria erosi aurretik, karrera batzuk korritu nituen baina harrezkerro, tope. Gero, soldaduskan 17 hilabete pasatu nituen eta han ez nuen korritzerik izan. Harek asko atzeratu



ninduen. Ia bi denboraldi korritu gabe egon nintzen”, gogoratzen du.

Burdinezko bizikleta zen GAC hura. “Aluminiorik ez zen, dena, burnia. Oraingo bizikletek 6 kilo inguru pisatzen badute, nireak, 11 kilo pisatuko zituen”.

### Profesioneletara

Afizionatueta zebilela irabazi zuen duela 60 urte, Ordiziako lasterketa. Profesionaletan ere aritu zen. Añor-gako Cementos Rezola izan

“Lanetik 5etan edo 5,30etan ateratzen nintzen eta etxera zuzenean etorri beharrean, Zumarragatik, Azkoititik, askotan Tolosatik bueltan etortzen nintzen etxera. Larunbatean ere lan egiten zen eta karrerak, igande goizean izaten ziren. Vuelta España korritzera joateko hartu nituen hiru hilabete. Gainontzean, lanik ez nuen utzi. Zumarragan pasatu nituen zortzi urte eta beste bi urte Orbegozon. Gero, bi anaiei artean, kamioia ero-

## Bahamontesekin asko korritu nuen.

Loroñorekin ere bai. Bahamontesekin oso ondo konpontzen nintzen.

zuen profesionaletako lehenengo taldea. “Afizionatueta ez ziguten dirua kobratzen uzten. Bale bat ematen ziguten eta dendetan zer-bait hartzeko aukera izaten genuen. Toki batzuetan dirua ematen ziguten baina ematerik ez zeukaten. Idiazabalen karrera bat korritu genuen eta dirua eman ziguten. Dirua kobratzen ikusi gintuzten eta hurrengo karrera, profesionaletan egingo nuela esan ziguten. 21 urtekin pasatu ginen profesionaletara. Batera eta bestera ibiltzen ginen”.

Lanean zortzi ordu egin eta entrenatzera joaten zen.

si eta garraioan ibili ginen jubilatuta arte”.

Bahamontes, Loroño... horien artean ibiltzen zen Aranburu ere. “Bahamontesekin asko korritu nuen. Loroñorekin ere bai. Bahamontesekin oso ondo konpontzen nintzen. Donostian, belodromoa, egurrezkoa zen. Poblet katalana ekartzen zuten. Bahamontes Vuelta España irabazita zegoelako ere bai. Santiago egunean Donostian korritu zuten. Hurrengo egunean, Villabonan zen karrera. Pistako bizikleta bakarririk ekarri zuen. Irtetzeagatik bakarrik, 15.000 pezeta eta



**Bixente Aranburu:**

*“Txorkatila eta kaderako bezurra normalean, markatuta izaten nituen. Alde batera edo beste erortzen ginen, generalean, zebarka izaten zen erorketa. Urte guztian, sendatu gabe”.*



**BAREAK**  
MERKATARI ELKARTEA

**arindu  
krisia  
Bareaken**

Txartel hau Bareak elkarteko  
denda batean aurkeztuta

**%5** eko  
**deskontua\***

\* 50 € arteko erosketetan, 2009ko urriaren 15a arte



## 'Prueba Villafranca'

Bixente Aranburuk, 20 urte zituela irabazi zuen Ordiziako lasterketa. Afizionatu mailan zebilen artean. Ondo gogoa du Aranburuk, duela 60 urteko lasterketa hura. "Urte hartan bi etapa izan ziren. Ez dakit zergatik. Montero orduan hasi zen antolatzen eta ez dakit zergatik, festa gehiago jartzeagatik edo... Lehenengo egunean, Ataundik eta Legorretatik ibili ginen eta azkeneko bueltan, Olaberitik metara. Hurrengo egunean, Itsasasondo aldera, Olaberri, Lazkao, Legazpiraino joan ginen eta handik Ordiziara. Bi egunetan, 126 kilometro izan zirela uste dut. Orduan ibilbide txikiagoak izaten ziren. Baina karreterak ere halakolak! Akordatzan naiz, Olaberri jaisten, nolako harriak zeuden. Pintxatu gabe pasatu nintzen baina azkeneko kurban grabilla zegoen, frenatu egin nuen eta sasira joan nintzen. Handik irten eta katea atera zitzaidan. Ordurako bi lagun alde eginda zetozen. Beasain pasa eta segituan harrapatu nituen. Helmugan, sprinean irabazi nien. Hurrengo egunean, bost lagun ailegatu ginen. Hirugarren egin nuen. Generala, irabazi egin nuen. Villafrancako karrera famo-soa izaten zen baina urte hartan profesionalik ez zenez (urte hartan Gipuzkoan, bi edo hiru profesional bakarrik zeuden), afizionatuentzat karrera gehiago izaten zen. Ni atera nintzen urtean, 6 edo 8 irten ginen: bi Zaldibiako, beste bi Ataungo, Donostiatik beste 2 edo 3... gu profesionaletara pasatu ginean, karrera asko jartzen zizkiguten. Beasainen, Zumarragan, Urretxun... karrera handiak jartzen hasi ziren. Gogoratzen naiz, Urretxun, ez dakit zein urtetan zen, Vuelta Frantzian korritu zuten denak etorri zirela korritzera. Hirugarren egin nuen karrera hartan", gogoratu du Aranburuk.

bizikleta berria eman zioten. Hemen nonbaiten atakatu zuen, eta ni bere gupilera. Mandubia suabe-suabe igoko genuela esan zidan. Haren suabe-suabea! Mandubia igo genuen. Azpeitira jaitsi, Bidani igo, Villabona, Andazarrate... Jaisten ikaragarri txarra zen, beldurtia. Igotzen artistea zen! Laugarren egin nuen Villabonan eta harek bosgarren"

Hamar bat urte egin zituen txirrindularitzan. "Dirua gastatu egiten genuen eta ez zegoen zer eginik. Lanerako jarri nintzen", dio Aranburuk.

### Vuelta España

Inguruko karrerarik gehienetan parte hartu zuen. Vuelta Española adibidez, Vasconavarro selekzioarekin joaten ziren. Urte batean gertatutakoa gogoratzen du Aranburuk: "Vasconavarro selekzioarekin atera ginen, hiru gipuzkoar eta hiru nafar. Zuzendariak bertan beheran utzi gintuen eta bueltan denok etxera. Hori-

zen joan. "Gaur egun ere, handia da Tourra, "orduan gehiago. Lehendabizi, Vuelta Frantzi mugitu zuena, Bernardo Ruiz izan zen. Urte batean bi etapa irabazi zituen eta hurrengo urtean hirugarren egin zuen okorrean. Hurrengo urtean hoberetogo zegoen. Dirua izaten zen orduan".

Ziklo kroasean ere aritzen zen. "Ondo moldatzen nintzen. Karrera asko izaten zen. Beasainen ziklo krosa irabazita premio onak izaten ziren".

Lasterketetan irabazita-ko kopa ugari ditu Aranburuk. Dena den, gehienak beste batzuk irabazten omen zituzten. "Hemengo karrera fuerteenak irabazten zituztenak, Agirrezabal, bi anaia bizkaitarrak eta Bidaurreta anai nafarrak ziren. Batek bat eta besteak bestea ibiltzen zuen".

### Koñaka

Gaur egungo txirrindularitza itsusituta dago erabat. "Karrera ikustera joaten zara, zerbait ikusi duzulako-

**B**otila txiki bat eramaten nuen  
koñakarekin eta aurrean ailegatzen  
nintzenean, esprintatzeko,  
koñaka hartzen nuen.

xe izan zen gure Vuelta Española. Lehendabiziko, ez eramateko materialik, Bilbaon emango zigutela dena. Ailegatu ginen haruntza. Langarikaren denda zen. Materialik iritsi ez zitzaiola. Dena erosi behar izan genuen. Geneuzkan diru guztiak kendu zizkigun. Donostiara joan ginenean orduan iritsi omen ziren, diru guztiak kendu eta gero. Oraingo bezalako garaiak ez ziren".

Frantziako Tourrera ez

an, eta zer eta drogatuta harrapatu dutela. Nahikoa jan izan bagenu bai! Orain bezala pastarik-eta ez zen hartzen. Guk nahiko jana eduki bagenu!", dio. "Sinpatina pastilla txiki batzuk egiten ziren. Bi aldiz hartu nituen eta botagureekin oso gaizki ibili nintzen. Gehiago ez nuen hartu", gaineratu du.

Dena den, Aranburuk, bazuen errezetatxo bat, sprintean iristen zirenerako. "Ondoenan, sprintean ibil-





Atzean lepoan zapia daramana da Bixente Aranburu. Garai hartako eta gaurko lasterketan arteko desberdintasuna honela azaltzen du berak: "Beasainen, behin, karrera nahiko polita jarri ziguten: 34 km/orduko batez bestekoa ateratzen bagenuen, sari berezia izango genuela. Irteeratik saiatu ginen baina ez genuen lortu 34 km/orduko batezbestekoa egitea. Gu 30ean ibiltzen ginen. Gaur egun ibilbide berean, 44 km/orduko egingo zuten. Oraingo bizikletak eta oraingo karreterak!"

tzen nintzen. Jaisten ere ondo. Esprintatzeko koñak pixka bat hartzen nuen. Botala txiki bat eramaten nuen eta aurreko filan ailegatzen banintz sprintera, koñaka hartzen nuen. Bizitu egiten ninduen. Nire droga hura zen. Zaldibiako batek, harek ere ondo sprintatzen zuen, bazekien nik koñaka eramaten nuela. Pixka bat eman nion, baina hala ere ez zuen irabazi".

### Garai ezberdinak

Denbora ez da alperrik pasatu eta Aranburuk bizi izan zuen txirindulariak eta

gaur egungoak ez dauka inolako zerikusirik. "Profesionaletan, 3 edo 4 mila pezetza krobatzen zenuen. Materiala pagatu behar genuen... zeroan gelditzen zen. Gorpila pintxatu eta gorpila eman orain bezala? Bai zera! Tubularra geuk aldatu egin behar. Tubularra bizkarrean eramatera behartzen gintuzten. Balbula parean, korapilo bat egiten genuen. Korapilo berezia zen. Bizkarrean hartu eta harekin joaten ginen. Hura gabe ez ziguten irteten uzten", kontatu digu Aranburuk.

Bizikletak, errepideak, arropa... dena aldatu da. Bizikletei dagokienean, "orain, manibelak-eta forratura etortzen dira, baina orduan zuloa edukitzen zuten. Aitona zahar bat ibiltzen zen antolatzen eta kortxoak jarri gabe harrapatzen bazintuen, kalera. Ez zuten ateratzen uzten".

Kuloteak eta kamisetak, norberak etxean zituenak. "Villafranca korritu nuenean, Orbea kamiseta bat neukan ez dakit nondik, eta Monterok, beste bat eman zidan, bere propagandarekin. Handik urte batzutara,

Cementos Rezolak talde bat atera zuen eta hark ematen zigun arropa".

Errepideak ere ez ziren gaur egungoak. "Olaberriko kaminoa, mendi pista baino okerragoa zen. Dena harri librea", esan du Aranburuk. Karreretara ere, askotan, norberak bere kontura joan behar izaten zuen. "Gaur egun, jubentilekin ikusten dut, kotxean hartu eta nola eramaten dituzten. Guk bizikletarekin ibili behar izaten genuen. Trena zegoen lekura trennez, baina bestela bizikletan joaten ginen", dio Aranburuk.



**Errehabilitazioa**  
**Masaje terapeutikoa**  
**Kirol masajeak**  
**Lunbalgiak eta ziatargiak**  
**Drenaje linfatikoa**  
**Kinesiologia**

Naiara Gómez Larrea  
Kol.zkia.: 1466

**Ordutegia:**  
astelehentik  
ostiralera  
9:00 - 13:00  
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32



**mazda**


**Bikar, S. A.**

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN



## Lazkao

## Kultur ekitaldiak

**Irailak 24, osteguna:**

**21:30ean:** Bertso afaria Maizpiden: Anjel Mari Peñagarikano eta Jokin Sorozabal.

**Irailak 25, ostirala:**

**16:30ean:** Jolasak: futbolina, mahai tenisa, paleta, mahai jolasak, kanikak, txapak, tailerrak...

**Irailak 26, larunbata:**

**19:00etan:** XVII. sagardo dastaketa herriko elkarteek banatuta. Taloak eta Lazkaotxiki musika eskolako trikitariak eta txalapartariak alaituta.

**20:00etan:** Ordiziako Santa Ana eta Lazkaoko Kantaka abesbatzen emanaldia, San Migel parrokian.

**20:00etan:** 'Visa Vis' kale ikuskizuna, plazan.

**Irailak 27, igandea:****Dantzari Txiki eguna:**

**11:00etan:** Dantzarien desfilea herrian zehar.

**13:00etan:** Dantzarien alardea.

**17:00etan:** Erromeria Patxi Perezekin.

## Legorreta

Eskulan ikastaroa  
urriaren 5etik aurrera

Legorretako Udaleko Kultur Batzordeak Eskulan tailerra antolatu du Kutxa Gizarte Ekintzaren laguntzarekin. Tailerra, astelehenetan izango da, arratsaldeko 4etatik 6etara, Patxi Ezkiaga Kultur Etxean.

Tailerra urriaren 5ean hasiko da eta abenduaren 21ean bukatu. Tailer honetan, joste lanak, puntua, gantxiloa eta baikina praktikan jarri ahal izango dira.

Ikastaroak plaza mugatuak izango ditu (12 ikasle) eta matrikularen kostua 25 eurokoa izango da. Kultur Etxean izena ematerakoan ordainduak izan behar dute. Izena emateko epea irailaren 24tik urriaren 1era bitartean izango da (7:30etik 13:30era).

Urriaren 23tik 31ra  
elkarrekin ospatuko dugu!

Goierritarra aldizkaria

20 urte

G+ h <sup>ta</sup> <sub>bost</sub> hogei

Goierriko Hitza

5 urte

**BiZi GOiERRi!**



## Idiazabal

### Urtsuarango festak

#### Urriak 2, ostirala:

**19:30etan:** Jaiei hasiera emango zaie suziri eta kanpaiekin.

**Ondoren:** Afaria: mondejuak, gixadua eta arditxuletak.

**22:30etan:** XVI. Mus azkarra lehiaketa.

#### Urriak 3, larunbata:

**12:00etan:** Meza.

**Ondoren:** Txistulariekin hasita, Mikel Mendizabal eta Xabier Zeberio bertsolariak, eta Dani Oiarbide eta Peio Urdangarin trikitilariak.

**14:00etan:** Udaletxeko bazkaria.

**16:30etan:** Patxin eta Potxinen ikuskizuna, jokoekin animaturik eta ume eta helduentzako txokolate jana.

**Ondoren:** Bertsolarien bigarren saioa.

**Iluntzean:** Afariak eta jarraian trikitixa.

#### Urriak 4, igandea:

**12:30etan:** Herri kirolak: Urtsuarango taldea Idiazabalgo taldearen aurka.

**14:00etan:** Herri bazkaria, Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia bertsolariekin eta Dani Oiarbide eta Peio Urdangarin trikitilariak alaiturik.

**17:00etan:** XVII. Toka lehiaketa.

## Beasain

### Arana-Bideluzeko jaiak

#### Irailak 25, ostirala:

**18:00etan:** Buruhandiak eta txistulariak.

**19:00etan:** Txokolate-jana umeentzat.

**20:00etan:** Disko-festa.

**24:00etan:** Disko-festa

#### Irailak 26, larunbata:

**12:30etan:** Baxoerdi-edate herrikoia.

**19:00etan:** Antzerkia haurrentzat: 'Musika tresnen fabrika'.

**20:00etan:** Euskaraokea.

**24:00etan:** Kontzertua: Los Delgas.

#### Irailak 27, igandea:

**12:00etan:** Toka erretiratuentzat.

**12:00etan:** Baxoerdi-edate herrikoia.

**12:00etan:** Herri kirolak umeentzat.

**18:30etan:** Tatxin eta Tatxan pailazoak.

**19:00etan:** Luntxa Aiztgorri Mendizale Elkartean, Arana, Bideluze eta J. M. Iturriotz kaleetan jaio eta bizi diren erretiratuentzat.



**Goierritarra aldizkaria**

badator  
goierritarra  
berritua!



**...garena ikasteko!**

**matricúlate**

**GOIERRIKO AEEK**  
**Ordizia**  
Santa Maria 4, 2. ezkerre  
943 889 174  
ordizia@aek.org

**Beasain**  
Urbialde plaza 7, behea  
943 889 340  
beasain@aek.org

[www.aek.org](http://www.aek.org)

**Zatoz Zientziaren aurpegi alaiaren bila!**



**zer nahi duzu bihar?**

**gizarte ekintza**

**hezkuntza**

[www.miramon.org](http://www.miramon.org)  
943 01 24 78  
DONOSTIA

**kutxa**

Beasain

## Lazkaibargo jaiak

**Irailak 24 , osteguna: Auzoko Zaindariaren eguna**

**18:00etan:** Jai-batzordeko ordezkari batzuk Arangoiti Egoitzara joango dira, han dauden Lazkaibarko auzotarrak bisitatzera.

**20:00etan:** Poteo-herrikoa. Ondoren Beti-Bizi elkartearen afari-merienda egingo da eta Mus-partida jokatu da.

**Irailak 27, igandea:**

**10:00etan:** Goiz eresia auzoan. Jesus eta Maitek botako dituzte suziak.

**12:00etan:** Beasaingo Andre Maria Zeruratuaren Parroki Elizan Meza, hildako auzotarren alde, urtebete honetan hildakoen alde batez ere. 12etako ohiko Mezatan egingo da eskaintza hori.

**14:30ean:** Senidetasun-bazkaria. Bazkalondoan, Beasaingo Txistulariek joko dute eta Dantzari batek aurrerakua dantzatuko du.

Arama

## Kultur astearen azken txanpa

**Irailak 24, osteguna:**

**19:30ean:** Pintxo lehiaketa Arrikutz elkartearen. Bakoiak bere materiala eraman beharko du.

**Irailak 25, ostirala:**

19:30ean: 'Piano bat bertsotan' ikuskiuna, Kultur Etxean. Ainhoa Ansa eta Jagoba Astiazaran musikari eta abeslariak izango dira emanaldiaren gidariak. Piano bat bertsotan emanaldiaren helburua euskal musika herrikoari bultzada ematea da, eta bestetik euskaldunek izan duten kantatzeko ohitura berpiztea. Honetarako publikoa, ikusle huts izateari utzi eta partaide izatea ere nahi du. Honela ikusleak gogokoen dituzten abestiak jo eta denak elkarrekin abesteko aukera izango da.

Ataun

## 'Ate joka' antzezlanak

Ataungo Udalak antolaturik, Txalo antzerkia taldeak, 'Ate joka' antzezlanak aurkeztuko du Herri Antzokian, urriaren 9an, gaueko 10etan. Sarrerak 10 euro balio du eta aurrez jarriko dira sarrerak salgai herriko tabernetan eta dendetan.

Zaldibia

## Mendi astea

**Irailak 24, osteguna:**

**19:30ean:** 'Suitza, haranak eta mendiak' ikusentzunezkoa, Karrean, M.A. Otsoa de Aldaren eta I. Diaz de Garaioaren eskutik.

**Irailak 25, ostirala:**

**22:00etan:** Mendi elkarteko urteko argazkien bilduma, Jon eta Ihintza herritarrek egindako 'Pirinioak itsasotik itsasora' ikus-entzunezkoa eta Koldo Zubeldiaren argazki-errezitaldia eskainiko dituzte. Antzokian.

**Irailak 27, igandea:**

Urteroko Baraibar-Zaldibia mendi irteera egingo dute igandean. Izena aurrez eman behar da, Joxepen eta Illatin.

**Ikaskide-urrats** akademia

Joan Iturralde, 5 - 943 160 120 eta Urbalde plaza 7- 943 027 792  
685 722 403 - 675 006 462  
www.ikaskide.net

**2009-2010 ikasturtea**

**ESKOLA LAGUNTZA:** Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduluak.

**HIZKUNTZA ESKOLA:** Ingelera eta Frantsesa. 6 urtetik aurrera.

**UNIBERTSITATE MAILA:** Mondragon Unibertsitatea (Goierrri).

**MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA:** Bakarka edota tutoritzapean.

**LAGUNTZA PEDAGOGIKOA:** Arreta gabezia, irakurmena, kalkulua...

**IKASKETA TEKNIKAK TAILERRA:** Ikasten ikasteko.

Kol. zkia.: 764



*Nerea Larrea Oyarbide*

Aho kirurgia

Implantologia

Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118





★ KONZERTUAK  
22.00 ETAN  
HASIKO DIRA  
O ELIKATUZ  
ZENITROAN



LAGUNTZAILEAK

hitza

Goierritarra

GITB  
GOIERRI IRIBAI TELEBISTA

CAJA LABORAL  
KIDAGIAK KIDIA

Ordizako Udala  
Ayto. de Ordiz

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputazioa Foru de Gipuzkoa

elkarlana

EROSKI

IRIZAR

orkli

O  
R  
D  
I  
Z  
I  
A  
K  
A  
N  
T  
U  
Z





### Itsasoko abesbatzako taldea 1975. urte inguruan

**Atzeko ilaran ezkerretik eskuinera:** Maria Jesus Arzelus (Sarriegibarrena), Pepi Arzelus (Sarriegibarrena), Lourdes Okariz (Mendiguren), Pilare Mujika (Urteaga) eta Anttoni Okariz (Mendiguren).

**Aurreko ilaran:** Maite Arzelus (Sarriegi), Izaskun Barrenetxea (Atinbarrena), Joxe Migel Zufiria (Itsasoko organista), Kizkitza Barrenetxea (Atinbarrena) eta Pilar Larrañaga (Ostatu).

San Inazio, 14 BEASAIN  
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA  
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA  
☎ 943 650 239

*Lirain*

*Lurrindegia eta opari gaiak*

**ZUBARA**  
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,  
Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89  
ABALTZISKETA



**Iñauti**  
Hartz Klinika  
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO  
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK  
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK


JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN  
☎ 943 88 46 28

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

**ibai ondo**  
barne diseinua  
dekorazioa

Garai berrietarako  
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa  
Tel.: 943 16 40 40  
BEASAIN



**MUJIKA**  
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94  
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA





**BARANDIARAN**  
**zeramikak**

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN  
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657  
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



**ausoegi**  
*barne berrikuntzak*

bainuak  
tximiniak  
zeramikak  
sukaldeak  
diseinuak  
proiektuak

Urdaneta kalea, 41 ORDIZIA  
tel.-faxes: 943 889 576  
www.ausoegi.com

*Erakusketa berria!*

**Berogailu dotoreak kolore eta akabera ezberdinekin**



**APROBETXATU  
PROMOZIO BEREZIA  
ORAIN!**




**Orain beheko suetan erakusketa berria :**

Biomasa EVE planarekin

Bertan 40 aparatu baino gehiago ikusteko aukera  
(zurezkoak, gasezkoak, pelletezkoak)

Beheko suak neurritan eta bertan diseinatuak

**Sukalde eta bainu gelatan adituak**



**Zeramikak  
azken  
diseinuak**

**Bainugelatan  
aukera  
zabala**





Nortasun **marka**

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

[www.faktore.net](http://www.faktore.net)